

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Rita Larrea Lopetegi

*Lezo, Gipuzkoa
(1930)*

Aurkibidea



Biografia



Lezoko Barunga baserrian jaio zen. Gurasoak Lezokoak zituen, ama Barungakoa eta aita Urrullo baserrikoa, eta Barungara ezkondu ziren. Aitak Pasaiaiko portuan egiten zuen lan; gero Lezoko "Industrias Navarras"en aritu zen. Pildaingo eskolara joan zen Rita, eta Jesusa eta Teresa izan zituen maistra. Hamaika urterekin Errenteriako mojen eskolara joan zen eta bi urtez ibili zen han. Gero, josten ikasten ibili zen Errenteriako jostun batekin. Beti aritzen zen baserrian lanean, amari laguntzen. Hogeita bi urterekin ezagutu zuen bere senarra izango zena, Joxe Zabaleta, Lezoko Une baserrikoa. Handik bi urtera ezkondu ziren eta Barungan, Ritaren jaiotetxean, jarri ziren bizitzen bere gurasoekin. Senarrak Errenteriako Papeleran egiten zuen lan; gero Lezoko Orbegozon aritu zen. Bi seme izan zituzten eta biak baserrian bertan jaio ziren. Handik urte batzuetara Larrezabal izeneko etxea egin zuten baserria salduta. Gazterik alargundu zen, berrogeita zortzi urte zituenean hil baitzitzaion senarra Ritari. Duela urte batzuetatik Lezoko Jaizkibel Etorbidean bizi izan da.

Zintak

LEZ-033

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Zabala, Edurne
- **Data:** 2010-01-21
- **Iraupena:** 57 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Eider

Pasarteak

1. Arropa nola garbitzen zuten

- **Erref:** LEZ-033/003
- **Iraupena:** 0:03:06. **Hasi:** 00:03:25. **Bukatu:** 00:06:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu

Laburpena:

Arropa garbitzera erreka joaten ziren. Anaiak harakinak ziren eta haien laneko arropa Ritak garbitzen zuen. Arropa nola garbitzen eta lehortzen zuten azaltzen du.

2. Baserriko lanetarako janzkera

- **Erref:** LEZ-033/007
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:11:49. **Bukatu:** 00:13:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu

Laburpena:

Baserrian abarkak erabiltzen zituzten. Astegunetako janzkerari buruz hitz egiten du: mantala ezinbestekoa zen, gona eramaten zuten, belarretan zebiltzala zapia jartzen zuten buruan... Mantalak etxean josten zituzten.

3. Jailetako arropa erostera Donostiara joaten ziren

- **Erref:** LEZ-033/008
- **Iraupena:** 0:02:29. **Hasi:** 00:13:24. **Bukatu:** 00:15:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu

Laburpena:

Jaiegunetarako arropa berezia izaten zuten. Arropa hura egiteko tela Donostian erosten zuten, Alde Zaharreko Muñagorri dendan. Donostiara erosketak egitera joaten ziren bakoitzean, pastel bat erosten zien amak. Amak garrantzia ematen zion txukun jantzita joateari.

4. "Nik zuk emandako pitarra edango nuke"

- **Erref:** LEZ-033/012
- **Iraupena:** 0:03:35. **Hasi:** 00:19:13. **Bukatu:** 00:22:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Kongregazioak
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea

Laburpena:

Senarra Biteri kalean ezagutu zuen. "Nik zuk emandako pitarra edango nuke" esaten zuten mutilek neskei etxera laguntzeko eskaintzeko. Neskak eta mutilak nola erlazionatzen ziren aipatzen du. Gari hartan ezin zuten dantza lotua egin mutilekin, kongregazioak bestela zigorra jartzen baitzien. Batzuek ez zuten zigorra onartzen eta kongregaziotik ateratzea erabakitzen zuten.

5. Gerrako oroitzapenak eta sufrimenduak

- **Erref:** LEZ-033/017
- **Iraupena:** 0:03:20. **Hasi:** 00:29:15. **Bukatu:** 00:32:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra

Laburpena:

Gerra hasi zenean, 6 urte zituen Ritak. Orduko oroitzapen batzuk gogoan ditu. Jende askok etxetik ihes egin zuen gerra hasi zenean. Anaia bat gerran hil zen.

6. Gerrako ezbeharrak eta beldurrak

- **Erref:** LEZ-033/018
- **Iraupena:** 0:02:37. **Hasi:** 00:32:35. **Bukatu:** 00:35:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak

Laburpena:

<p>Gerra hasieran, jende asko ezkutatu zen Jaizkibelen. Geroago, borrokak izan ziren Miura inguruan. Ama bat eta haren hiru semeak hil zituzten gerran. Bala-soinuak entzuten zituztenean, ezkutatu egiten ziren. Bonbak ere bota zituzten Lezon eta jendea hil zen orduan.</p>

7. Gerrako giroa eta bidegabekeriak

- **Erref:** LEZ-033/019
- **Iraupena:** 0:02:16. **Hasi:** 00:35:12. **Bukatu:** 00:37:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

<p>Jaizkibelen "Langileen Batailoia" egon zen bidea egiten. Soldaduak barrakoieta egoten ziren. Elizan mezan Cara al Sol abestu behar izaten zuten. Behin bi soldaduk atzetik jarraitu zioten Ritari ilunabarrean eta beldurra pasa zuen.</p>

8. Anaiei esperientzia gerran

- **Erref:** LEZ-033/022
- **Iraupena:** 0:03:02. **Hasi:** 00:42:32. **Bukatu:** 00:45:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak

Laburpena:

Anaia bat 7 urte egon zen soldadu. 18 urte zituela eraman zuten gerrara, eta oso gogorra izan zen agurra amarentzat. Etxera itzuli zenean, oso gaixo zegoen; Mola ospitalean egon zen ingresatuta. Beste anaia 6 urte egon zen gerran, baina sukaldaria zenez, ez zen hain gogorra izan esperientzia.

9. Gerra osteko elikadura

- **Erref:** LEZ-033/024
- **Iraupena:** 0:01:21. **Hasi:** 00:46:06. **Bukatu:** 00:47:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Gerra ostean gosete eta miseria handia egon zen. Auzoan bazeukaten artoa txikitzeko makina bat; handik lortutako "irina" esnetan egosi eta jan egiten zuten: "Pantxito" deitzen zioten plater horri. Babarruna eta odolkia asko jan zuten garai hartan; ogia, ordea, ez zegoen eta taloa jaten zuten.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2025-12-03

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com